1 Azalpen-testua

Izena _____ Data _____

Nahiko listu

Ia konturatu ere ez gara egiten, baina etengabe ari gara listua sortzen eta irensten. Langile nekaezin batzuek ekoizten dute likido hori gau eta egun: listu-guruinek. Ahoaren inguruan ditugu guruin horiek, eta bi igerileku betetzeko adina listu ekoizten dute pertsona baten bizitzan.

Baina zertarako horrenbeste listu? Pentsa dezagun pastel-puska handi bat jan behar dugula listuaren laguntzarik gabe. Hau da, ahoa eta eztarria lehor-lehor ditugula eta pastela irentsi behar dugula. Ez litzateke batere lan erraza izango! Baina listuari esker, erraz eta azkar egingo du urdailerako bidea jaki gozoak.

Gainera, listua ezinbestekoa da jakien zaporea dastatzeko ere. Horrela da; irentsi nahi dugun pastelak ez luke zapore handirik izango listurik gabe. Izan ere, listuak urtu egiten ditu elikagai-partikulak, eta soilik horiek disolbatu ondoren egingo dute bere lana mingaineko dastamen-papilek. Orduan jakingo dugu zer zapore duen jakiak: gozoa, gazia, mingotsa ala garratza.

Bestalde, listuak badu beste zeregin garrantzitsu bat: jatorduen ondoren ahoan gelditzen den azukrea urtzen du. Horrela, janaria kentzen die bakterioei, eta txantxarra sortzea oztopatzen du.

Galtzak bete lan listuak!

1 Aukeratu. Zer helburu dauka goiko testuak?

- ☐ Zer den listua eta non sortzen den azaltzea.
- ☐ Listuaren eta jaki gozoen arteko interakzioa azaltzea.
- ☐ Listuaren zeregin nagusiak azaltzea.
- ☐ Pastelak jateak zer eragin duen ahoan eta haginetan erakustea.

2 Testuan irakurritakoaren arabera, aipatu listuaren hiru eginkizun nagusiak.

1. _____
2. _____
3. _____

3 **Markatu aukera zuzena azalpen testuei buruzko adierazpen hauetatik.**

- [ ] Gai bati buruz pertsona batek duen iritzia azaltzen da.
- [ ] Gai bat era argian eta ordenatuan azaltzen da, informazioa paragrafotan antolatuta.
- [ ] Gai bati buruzko informazioa eman eta, batez ere, iritzia azaltzen da.

4 **Nola esango zenuke beste era batera testuari amaiera ematen dion esaera?.**

- [ ] Lana franko eta egiteko gogorik ez!
- [ ] Zenbat lan egiten duen listuak!
- [ ] Listua beti lanak amaituta!

6 **Idatzi azalpen-testu bat sarrera honetatik abiatuta. Bilatu gaiari buruzko informazioa eta ordenatu paragrafotan. Asmatu izenburu bat ere.**

Sarritan, ez dugu patxadaz jateko astirik hartzen, ustez garrantzitsuago den beste zereginen bat izaten baitugu ia beti. Telebista ikusi, lagunekin egon, Interneten sartu... edozein aitzakia da ona mahaitik arrapaladan alde egiteko ahoa janariz beteta. Baina, zer gertatzen da gure digestioarekin horrela jaten badugu?